

Ur-Mia

Solas Elkarateak,

50. urteurrena (1962-2012)



• *Ur-Mia Solas Elkartea*

2012ko urtarrilaren 12an Ur-Mia Solas Elkarateak 50 urte bete ditu. 50. urteurrenaren ospakizun ekintzak maiatzaren lehenengo asteburuan izan ziren, maiatzaren 5etik 7ra. Asteburu hura aprobetxatu zuen elkarateak Elkaratearen historia eta gorabeherak biltzen dituen liburuxka bazkideen artean eta auzoan banatzeko. Liburuxka horren laburpena da ondorengo artikulua.

Elkaratearen historia laburra

Sorrera. 1960 urte inguruan, auzoan bazen mugimendua eta elkar biltzeko gogoia. Gehienetan tabernan biltzen zen gazte eta zahar jendea, musean aritzeko, festa egiteko eta abar. Ingaruko herrietan, berriz, soziedadeak sortzen ari ziren, eta bailarakoek ere bertan sortzeko aukera ikusi zuten.

Hiru lagun hasi ziren sortu nahian, eta bi saiakera behar izan omen zituzten nahiko jende biltzeko. Erdi desafio, erdi zirikatze, Luis Gorrotxategi izan zen jendea biltzen ahalegindu zena eta azkenean lortu zuen 30eko lagun zerrenda osatzea.

Horrela kontatu digu Luis Gorrotxategik: "Garai hartan musean aritzen ginen laxkanotarren tabernan, ta Urdanpilletari eta Urbizuri esaten nien ea zergatik ez genuen sortzen soziedade bat hemen. Haiek esan zidaten: 'Hik bilatzak jendia ta guk eingo diagu gainontzeko guztiya'. Aurreneko saiakeran ez nittun nahikuak bildu. Ordun asuntua pixka bat

hoztu zitzaidan, baina handik gutxira berriz ere beroaldiya izan nun eta hasi nintzan zirikatzen. Berdin erantzun zidaten eta bigarrenengo saiakeran lortu nuen behar zian 30 lagunak biltzea".

Egoitza bazkideek *ahaldian* (auzo lanean) egin zuten. Eta 1962ko urtarrilaren 12an inauguratu zen Ur-Mia Elkartea.

Urte horretako lehenengo batzarra otsailaren 11an izan zen eta horrela azaltzen da bertan:

"En Ereñozu a 11 de febrero de 1962 con previa autorización del Exm. Sr. Gobernador Civil de la Provincia de Guipuzcoa, se reúne la Comisión Organizadora que ha actuado hasta la fecha, compuesta por

*D. Jose M^a Urdampilleta
D. Francisco Urbizu
D. Jose Luis Gorrochategui
D. Basilio Biurrarena
D. José Legarreta
y los futuros Socios de la Sociedad Ur-Mia".*

Hasieran boskote hau izan zen gestio guztiak egin zituen, eta lehenengo batzar honetatik atera zen honako lehenengo zuzendaritza: Lehendakaria, Jose M^a Urdanpilleta Otegi; idazkaria, Jose Legarreta Domingo; diruzaina, Jose Etxeberria Huizi; eta bokalak, Santiago Gorrotxategi Artola eta Esteban Izagirre Oiarbide. Urtarrilaren 12rako elkarte bezala hasia zen funtzionamenduan, baina ez zegoen dena egina. Oraindik lanak bazeuden egiteko eta horretarako dirua ere behar zen. Lehenengo bazkide izandakoak kontatu digutenez bakoitzak 30 duro (150 pzta) jarri zituzten, baina lehenengo aktan esaten denaren arabera, diru gehiago behar zen maiatzaren 6an egin behar zen festarako. Maiatzaren 6a hartu zen irekierako festa eguna bezala.

"El nuevo Presidente habla a los reunidos sobre el particular, manifestándoles que se necesitan 75.000 pesetas, y la forma para el logro de las mismas, si hubiera algunos Socios que quisieran adelantar dicho dinero, o por el contra-

rio hacer gestiones acerca de alguna Entidad bancaria para obtener dicho Préstamo. Los socios D. Miguel Urdampilleta Otegui, D. Santiago Gorrotxategui Artola y D. Vicente Oyarbide Beldarrain se prestan para adelantar dicho Capital a razón de 25.000 pesetas cada uno, condicionando la devolución de dicho capital en cinco años, teniendo en cuenta las posibilidades que puede tener la Sociedad y que les abone los intereses que la Junta crea convenientes. Se acepta lo propuesto de pleno y los citados Sres. hacen entrega de las referidas pesetas".

Bazkide kopurua ere erabaki zen batzar honetan, eta 35 laguneko maximoa erabaki zen. 1962ko maiatzaren 6an egin zen irekiera festa, meza ondoren bazkaria eginez. Maiatzeko lehenengo asteburua hartu zen hemendik aurrera elkartearen egun bezala. Hasieran bazkaria igandez egiten zen, baina gero larunbat gauera pasatu zen.

1962ko maiatzaren 6ko irekiera festa ospatu zen.



Elkartearen izena. Bailara Urumea izenarekin ezagutzen zen orduan eta erreken ingurua izan da auzoaren bizitza historian zehar. Bere inguruan sortutako auzoa da; burdinolen garaitik gure baserriak eta gaur eguneko fabrikak ere bere erriberetan edo bazterretan kokatu dira. Horregatik dugu bertako jendeak hainbesteko lotura errekarerekin. Inguruko herrietan erreka-koak bezala ezagutzen gaituzte.

Urumea izenak *ur mehea* esan nahi omen du, hala esan digute bertako bazkide zaharrenek. Luis Gorrotxategi, Juanito Sarobe, Jose Luis Beasain (*barberua*) eta Florian Oiarbiderekin izandako elkarrizketan honela adierazi zuten: “*Guk mehea 'mia' esaten deu, horregatik jarri geniyon Ur-Mia izena. Joxe Legarretak (Pepitok) egin zun izenaren proposamena, ta bestioi ondo irudittu zitzaigun*”.

Egoitza. Sortu zenetik, elkarteko egoitza nagusia Ereñotzu, 17 etxeko behea da. Etxea eraiki zenean, behean lau lokal zeuden. Elkartea sortzerako garaian, zeuden hiru lokal libreak erosi ziren. Bazkideek lurrak atera, egokitze eta gainerrako lanak egin zituzten. Geroago, atzeko lurra erosi zen, eta bertan terraza modukoa jartzeaz gain, erretegia ere egin zen. Lur hori Juana Otegi erosi zitzaion eta 10.200 pzta ordaindu ziren. 1972an, berriz, Ereñotzu, 18 etxeko lokala erosi zen: elkartean almatzen moduan erabiltzeko lekua falta zen eta baita kirol materiala gordetzeko ere. Hala erabaki zen 1973ko apirilaren 9an egin zen Batzorde Orokorrean, Jose Oiarbide Beldarrain Lehendakaria zela. Azkeneko erosketa, Ereñotzu, 17 eta Ereñotzu, 18 etxeen artean zegoen lur zatikoa izan zen. Gaur egun aparkaleku moduan erabiltzen dena.



Ur-Mia Solas Elkarteko sarrera gaur.



Egoitzako atzeko terraza eta jangela.



Egoitza nagusian hainbat moldaketa egin dira. Hasiera batean egoitza era desberdinean zegoen antolatua. Hasteko, sarrera Ereñotzu, 17ko portaletik zuen, eta eskailera batzuk jaitsi behar ziren. Sukaldea, berriz, orain aldean, txikiagoa zen eta barraren eskuinean zegoen. Gaur egun sukaldea den horren azpian zulo bat zegoen biltegi bezala erabiltzen zena. Denbora pasa ahala, elkarteak egokituz joan da, gaur egun erakusten duen antolaketa 80ko hamarkadan egin zen. 1984an sarrera berria jarri zen, portaletik beharrean lehen bolatokia zenetik egin zen.

Sukaldea ere handitu egin zen eta barraren atzean jarri. Handik aurrera egin diren moldaketak txikiak izan dira: kanpoko terraza txukundu, parrilla tokia egin, komuna konpondu eta egokitu, kalefakzioa jarri,... Zuzendaritza guztiak elkarteak eguneratzen saiatu dira beti.

Bazkideak. 1962ko urtarrilean Ur-Mia Elkartea 31 bazkiderekin eta ohorezko bazkide batekin osatu zen. Urte hartako batzarrean ere bazkide kopurua 35ean jarri zen. Hona hemen garai hartako bazkide guztiak:

BAZKIDE SORTZAILEAK 1962

Andres Aranburu Perurena
 Juan Beasain Lekuona
 Basilio Biurrarena Otxotorena
 Inaxio Biurrarena Otxotorena
 Esteban Elorza Aranburu
 Joxe Etxeberria Huizi
 Blas Etxeberria Santa Kruz
 Patxi Goikoetxea Elizalde
 Jose M^a Goñi Pagola
 Xanti Gorrotxategi Artola
 Luis Gorrotxategi Artola
 Bixente Gorrotxategi Lizeaga
 Joxe Legarreta Domingo
 Luis Legarreta Domingo
 Joxe M^a Miner Oiarzabal
 Joakin Prieto Sampeiro
 Bixente Oiarbide Beldarrain
 Joxe Oiarbide Beldarrain
 Manuel Oiarbide Elorza
 Antonio Oiarbide Elorza
 Bittoriano Oskoz Iturria
 Rosario Salaberria Zubiri
 Esteban Izagirre Oiarbide
 Batista Santa Kruz Otxotorena
 Juanito Sarobe Aranburu
 Martin Telletxea Etxeberria
 Angel Ugalde Altuna
 Patxi Urbizu Bereau
 Jose M^a Urdanpilleta Otegi
 Miguel Urdanpilleta Otegi
 Anastasio Zabala Juanikorena

OHOREZKO BAZIDEA

Juan San Idelfonso Apalategi



Elkarteko bazkideak (2012. urteko argazkia).

Bazkideen kopurua 1979an aldatu zen. Urte hartako apirilaren 1ean egin zen Batzar Oroko-rean kopurua 40raino igotzea onartu zen. Bazkide kopurua beharren arabera aldatuz joan da: 80ko hamarkadan kopurua 50era pasa zen, eta gaur egun ez dago kopurua ezarria.

Aurretik azaldu den bezala, gaur egun, bazkideen kopurua ez dago ezarria, baina bazkide izateko ezaugarri batzuk badira. Alde batetik, adin nagusikoak behar dute izan, eta gainera beti izaten da kontuan auzoarekin duen lotura: auzoan bertan jaioa edo bizi dena izatea komenigarria jotzen du gure elkarteak, auzoaren egunerokotasunean eragina izatea baita helburuetako bat. Bestalde, eskubide osoa duten bazkidez gain, beti izan dira ohorezko bazkideak. Gaur egun 65 urte betetzen dituen bazkidea ohorezkoa izatera pasatzen da, hau da, elkartearen egoitza erabili dezake eta bertako giltza mantendu, eskubide batzuk galtzen baditu ere, adibidez batzarretan bozkatzeko eskubidea. Ohorezko bazkide egiten denak bere ordeztu beste norbait sartu dezake bazkide moduan. Hasieran familiakoa izan behar zuen, baina gaur egun ez da hori derrigorrezkoa, gehienetan horrela izaten den arren. 2012ko apirilean Ur-Mia Elkarteak 55 bazkide ditu eta ohorezkoak berriz 14 dira.

Elkartea eta emakumeak. Ur-Mia sortu zen egun beretik emakumeek bertara sartu ahal izan dute. Hasiera batean sortzaileen artean hitz egindako gaia izan zen hau. Bazkide moduan ezin zuten elkarteko kide izan hasieran, baina gonbidatu moduan sarrera inoiz ez zitzaien ukatu. Eztabaida horren inguruan, Juan Sarobek

kontatu digunez, kontuan izan behar da auzoa zer zen garai hartan. Ereñotzuko emakumeek ez zituzten aukera asko beren denbora libre betetzeko. Aukera bakarrenetako bat mendira irteeratzoren bat egitea zen. Horregatik erabaki zen emakumei ez galaraztea sarrera. Gainera, sortzaile gehienak ezkonduak ziren, eta zergatik ez ziren ba beren emaztearekin elkartera joango otorduak egitera eta abarrak? Inauguratu zen egunean bertan sartu ziren emakumeak elkartera, eta proba moduan orduko argazki ofizialak ditugu. Egun horretatik aurrera, emakumeek beren presentzia izan dute gure elkartearen. Batetik beharrezkoak izan dira antolatu diren herri bazkari, afari eta abarrekotan antolatzeke garaietan, beti hor izan dira sukaldari lanetan. Garbitzaileak ere izan ditu elkarteak eta hauek ere emakumeak izan dira.

Urte zaharretako jaiak eta gainerakoak, familia artekoak izaten ziren, eta familia osoa hurbiltzen zen elkartera, gurasoak, seme-alabak,... Eta baita beste ekintzetan ere, Santa Ageda bezperako Santa Eskean esate batera. Emakumei bazkide izateko aukera 2000. urtean iritsi zitzaien. Aurretik egia esanda, ez zen inongo eskaririk izan. Garai aldaketa kontuan izanda, eta bertako estatutuak inongo desberdintasunik ez zutela azaltzen ikusirik, 2000ko apirilaren 2an ospatu zen batzarrean, lehenengo aldiz proposatu eta aho batez onartu ziren emakumeak bazkide moduan. Lehenengo bi emakume bazkideak Ixiar Miner eta Igotz Zerain izan ziren. Ordutik aurrera emakume gehiago bazkide egin dira, eta gaur egun bost dira emakumezkoak gure bazkide zerrendan.



Hiru emakume elkarteko sukaldean.

Zuzendaritzak eta Lehendakariak.

Ur-Mia Solas Elkarteko estatutuek sortu zenez geroztik azaltzen duten bezala, Elkarteko organo gorena Batzar Orokorra da. Bera da jarduera-plan orokorrak onartzen dituen, eta apirilean egin ohi du bere bilkura. Beregain daude baita ere urteko diru kontuak onartzea, estatutuak aldatzea eta baita ere kudeaketa organoa duen Zuzendaritza Batzordea onartzea ere, aginte-aldiko Lehendakaria eta gainontzeko karguak erabaki eta izendatuz. Hasieran aldaketa hauek urtero proposatzen ziren, baina gerora bi urtetako aginte-aldiak onartu ziren. Aukeraketa aurkezten ziren hautagaien artean egiten zen eta askotan gertatu da Zuzendaritza Batzordea bi urtez baino gehiagotan luzatzea inongo aldaketarik gabe. Denboraren poderioz, gero eta hautagai gutxiago azaltzen zirenez, bazkidetza lau taldetan banatu zen eta 1998ko apirilaren 5eko Batzar Orokorrean taldeak eratu ziren. Orduz geroztik, talde bakoitzak osatzen du kudeaketarako Zuzendaritza Batzordea, eta beraien artean izendatzen dira karguak. Zuzendaritza bakoitzak bi urtez egiten du lan, eta txandaka-txandaka talde guztiak hartzen dute parte kudeaketa lanetan.

UR-MIA SOLAS ELKARTEKO LEHENDAKARIAK

Joxe M ^a Urdanpilleta Otegi (1962 / 1969)
Joxe Legarreta Domingo (1963-1964 / 1975-1978 / 1983-1985)
Joxe M ^a Miner Oiartzabal (1965)
Joxe Oiarbide Beldarrain (1966 / 1970-1974)
Rosario Salaberria Zubiri (1967-1968)
Daniel Zerain Miner (1979-1980)
Antonio Miner Oiartzabal (1981-1982)
Joxe Zerain Miner (1986-1988)
Juan Sarobe Aranburu (1989-1994 / 1998-1999)
Tomas Solano Aranburu (1995-1997 / 2000-2001)
Joxe Manuel Huizi Larrea (2002-2003)
Inaxio Estarloa Irazusta (2004-2005)
Leandro Miner Oiartzabal (2006-2007)
Ibon Miner Santa Kruz (2008-2009)
Julian Urkiola Borda (2010-2011)
Inaxio Ansa Huizi (2012)

Elkartea eta auzoa.

Sortu zenez geroztik, beti izan du Elkartek helburu nagusi bezala, auzoko bilgune izatea eta bailaran egiten diren ekitaldi kultural eta herrikoietan parte zuzena hartzea. Beti ere gure herriko ohiturei lotua izan da eta hori aprobetxatuz auzoa bizirik mantentzeko helburua ere izan du. Horren adibidea da 1965ean sortu eta gaur arte jarraitu duen Santa Ageda bezperako taldeak. Auzoko jaiak ere beti izan ditu kontuan Elkartek. Auzoko jai nagusiak diren San Antoniotan beti hartu du parte, bai antolatu diren ekitaldietarako bere egoitza utziaz eta baita ekitaldiak antolatzen ere, sagardo probaketa eta bola eta toka txapelketak esaterako. Luixtarretan ere an-

tolatu ohi zituen ekintza desberdinak ere eta gaur egungo Udazken Kulturean ere bertso afaria prestatzen ere egiten du lana.

Santa Ageda – Santa Eskea. Santa Eskerako taldea 1965ean atera zen lehenengo aldiz bailira guztitik barrena. Santa Agedako ohitura ekarri behar zela auzora eta, horretan hasi ziren lanean Elkarteko kide batzuk. Ur-Mia zen garai hartan auzoko bilgune nagusia eta euskal kultura zabaltzeko gunea ere bai. Taldea osatzeko Hernanitik Tiburtzio Odriozola *Patxi* etorri zen eta berak erakutsi zituen Santa Agedako koplak eta abesteko modua ere. Makilak nola kolpatu, erritmoa, bakarlariak eta abarren azalpenak berak eman zituen.



Santa Eskerako taldea 1965ean atera zen lehenengo aldiz.

Ordutik aurrera, urtero-urtero atera ohi da taldea bailara guztian barrena. Aipatu daiteken aldaketa bakarra emakumeena da. Hasieran, garaiak horrela eskatzen zuelako, gizonezkoak bakarrik ateratzen ziren, baina gerora emakumeak ere hasi ziren ateratzen. Beti ere garaien aldaketek ekartzen duten normaltasunean. Ibilbideari buruz berriz, beti mantendu da bailara guztian barrena kantatzeko ohitura. Lehenengo urteetan *Askatsun* hasi eta *Latxetik Lastaolara* joaten zen, eta handik *Epele* eta *Fagollagatik* pasa ondoren *Ereñotzura* bueltatzen zen eta *Ur-Mian* egiten zen afaria. Gaur egun, *Pagoagan* hasten da eta sailean pasatzen dira *Fagollagaraino*, eta handik joaten da *Lastaolara* eta *Epele* guztia pasa ondoren, *Larre-gainera* igotzen da taldea, bertan azken saioa egin eta sagardotegian afaltzera. Taldean behar beharrezkoak izan dira beti koplariak, trikitilari eta soinu-joleak, eta bakarlaria.

Hainbat izan dira koplak kantatzen eta beti saiatu izan da *Elkartekoak* edo *auzokoak* izatea: esaterako *Ramon Huizi Enazti*, *Florian Oiarbide*, *Aritz Zerain* besteak beste. Kanpotik etorritako koplariak dira baita ere: *Argiñarena*, *Anatx* edo *Unai Agirre* esaterako. Taldea zuzentzen duen bakarlari lanetan aipatu behar dira *Patxi Odriozola*, *Florian Oiarbide*, *Joxe Legarreta* eta *Iñaki Santa Kruz*.

Taldean elkartekideak bakarrik ez dira ateratzen direnak. Beti izan da parte hartze irekia eta horri esker mantendu da ohitura hau auzoan, eta auzotar guztiak izaten dira egun horretan taldearen *bixitaren* zain.

Santa Ageda, 2012. urtean: elurretan.



Auzoko jaiak, San Antonioak. San Antonio jaiak dira auzoko jai nagusiak eta beti izan dira auzotarrak biltzeko aukera aparta.

Horrelako egun bereziak izanik auzoarentzat, Ur-Miak ere behar-beharrezkoa ikusi du beti hauetan parte-hartzea. Parte hartze zuzena izan ohi du ekitaldi batzuetan, gaur egun ohikoak bihurtu direnak antolatuz. Bi ekitaldi dira urtero-urtero Elkartek antolatzen dituenak eta jaietako egitarauan azaltzen direnak: sagardo probaketa igandez eta egun berean Bola eta Toka tiraldiak.

Halere, gure adinekoek oroitzen duten bezala, auzoarekin batera karroza bat egin zen 1965ean, eta bertako jaietan eta San Joanetan atera zen. Auzotar askok hartu zuen parte eta bertsoak ere idatzi ziren kantuz ateratzeko. Bertso horietan baserritarren bizimodua azaltzen zen eta auzotarrak harro sentitzen ziren baserri-tar bizimoduarekin, gogorra izan arren haien bizitza. Hemen hiru bertso:

1965. urtean Ur-Mia Elkartek ateratako karroza.



(1) Baserrian jaio eta
bertan gara bizi.
Errira etorri gera
menditik igesi.
Ereñozuar guztiyoi
agur lendabizi.
Gure oitura onak
beñere ez utzi.

(2) Jaiak igarotzeko
gera etorriyak.
Zueri erakutziya
mendiko berriyak.
Goyen utzi ditugu
bior eta ardiyak.
Zaintzen lanik ez degu
zekor eta txerriyak

(3) Gure bizi modun
da arrigarriya.
Goizetik arratsera
lan izugarriya.
Oso asko eginda
bestentzat erdiya.
Orra nola joatendan
gure izerdiya.

San Antoniotan ohikoa zen herri bazkaria egitea; eta urte haietan Ur-Mia izan zen auzotarren bilgunea, bertan egiten zen bazkaria.

Jaien egitaraua aldatzen joan da, eta ekitaldiak ere aldatzen joan dira. Gaur egun, aurretik esan den bezala, bi dira antolatzen dituen ekitaldiak. Biak jaietako igandean izaten dira.

Sagardo probaketa. Hasieran, Ur-Mia Elkar-teak atzean duen terrazan egiten zen, baina badira urte batzuk auzoko plazan egiten dela. Bertan Elkar-teak inguruko 7 sagardotegien sagardoak jartzten ditu dastatzeko, eta laguntzeko txorizo pin-txoak.

Bola eta Toka tiraldiak. Jaietan San Antonio Txapelketako tiraldia egiten da. Lehen, elkar-teko atarian zegoen bola-tokian egiten zen goiz eta arratsalde. Gaur egun, auzoko bola-toki berrian botatzen da goizez. Bolarekin batera Toka Txapelketa ere jokatzen da.



San Antoniotako sagardo probaketa.

Aipagarria da, auzoko tabernak itxiz joan diren heinean, San Antonio egunean eta jaietako igandean hamaiketako egiten dela elkartean. Auzora jaiak ospatu nahian datozen guztiak tripa goxatu dezaten.

Luixtarrek - Udazken Kulturala. Auzoa txikia izan arren, bertakoek izan dute urtean zehar ekitaldiak antolatzeko gogo. Garai batean *Luixtarretan* biltzen ziren bailarako gaz-

teak eta festa ugari antolatzen ziren. Meza, bazkaria eta herri kirolak izaten ziren ekitaldi nagusienak. Jai haietan ere beti izaten ziren bertsolariak eta soinu-joleak.

Ur-Mia sortu eta gero, bilgune ederra topatu zuen auzoak eta bere inguruan antolatzen ziren jaiak. Luixtarrek etenaldi bat izan zuten eta 80ko hamarkadan hasi ziren berriro ere *Gazteriaren Festak* antolatzen. Orduan ere Ur-Mia izaten zen herri afarien tokia. Jai hauek Aste Kultural bilakatuz joan ziren, eta gaur egun *Udazken Kulturala* gisa antolatzen dira auzoan.

Udazken Kulturalan urtero bertso afaria antolatzen dute Ur-Miak eta auzoko kultur taldeak elkarlanean. Afari hauetan izen handiko eta gaurkotasun handiko bertsolariak izaten ditugu. Esan daiteke inguruko bertsolariez gain txapeldun guztiak etortzen direla.



1960ko hamarkadan Luixtarren Festak ospatzen ziren; orduan herri kirolak izaten ziren ekitaldi nagusietako bat.



Udazken Kultureko bertso afaria.

Bertsolariak.

Urumea bailaran betidanik izan da bertso zaletasuna. Bertako bertsolari batzuk, ingurutik kanpora ere izan dute sona. Izen hauek beti azaltzen dira bertsolaritzari buruz hitz egiten denean, adibidez *Txabolategi*, *Txirrita* eta *Hernani Txiki*. Bertakoak bakarrik ez dira hemen arituta-koak, bertso plaza handitzat hartu daiteke Ereñotzu eta bertsolari handienak beti nahi izan dute bertan kantatu. San Antonio jaietako igandean beti izan ohi dute protagonismoa bertsolariek.

Hori horrela, Ur-Mia Elkartek ere beti mantendu du bertso zaletasun hori, eta bere jai nagusietan ez dira inoiz falta izan. Hasieratik erakutsi du Elkartek euskal kulturarekin lotura eta maitasuna.

1963ko urriaren 10ean Joxe Manuel Lujanbio *Txirrita* bertsolariari omenaldia egin zitzaion eta bere jaiolekuan monumentu oroigarri bat jarri zen. Bertan irakurri daiteke nork egina den: *UR-MIAKUAK*.

Elkartean bertan egun hura gogoratzen duen argazkiak horrela dio:

"Dagonila'ren 14'an 1860 garen urtean, jaio zan gure 'TXIRITA' bersolari trebea eta ospatsua izan zana, gure Euskaleñi agurgafi onetan. Jaunak bereganatu zun garagarila'ren 3'an 1936 gañen urtean.

Gaurko egunez beregan oroiturik, urila'ren 20'an 1963 gañen urtean, egin diogu omen aldia. Bera jaio zan toki onetan, oraindik ikusten dan bezela orma puska bat zutikan beraren onduan."



1963ko urriaren 10ean Joxe Manuel Lujanbio *Txirrita* bertsolariari omenez bere jaiolekuan monumentu oroigarri bat jarri zen.

Monumentuaren harriak Urumea aldeko Ugaldetxo-Pikoagan atera ziren eta Anastasio Zabala harginak eraiki zuen denen laguntzaz. Bedeinkapena Juan San Ildefonsok, bertako apaizak eman zuen eta bertan izan ziren *Uztapide*, *Basarri*, *Lazkao Txiki*, *Arozamena* eta *Hernani Txiki*. Hitzaldia berriz Juan M^a Lekuonak eman zuen. Egun hartan bazkidea zen Bautista Santa Kruzek honako bertsoa bota zion Txirritari:

*Gure Txirrita Lujanbio zan Joxe Manuel izena,
jenioz oso noblia eta bertsolariya zuzena.
Noiz eta segi egun guztiyan beñere aspertzen etzana,
sekulan etzan aitu izandu onek zuen almazena,
Jaun zerukoak ez luke il biar sekula olako gizona.*

1975eko maiatzaren 4an Elkartek *Uztapideri* omenaldia egin zion. Egun aparta eta berebizikoa izan zen Elkartearentzat zein auzoarentzat. Garai hartan goi mailan aritzen ziren bertsolariak gerturatu zitzaizkigun: Xalbador, Mattin, Koxme Lizaso, Mitxelena, Azpillaga, Lopategi, Joxe Lizaso eta Lasarte, denen buru Joxe Mari Aranalde gai jartzaile gisa.

1975eko maiatzaren 4an Ur-Mia Elkartek *Uztapideri* omenaldia egin zion.
Arg.: J.M. Gómez (Hernaniko Udal Artxiboa)

1978ko maiatzaren 7an Pablo Zubiarrain *Hernani Txikia* bertsolariaren txanda izan zen omenaldi kontuetan. Auzoko bertsolari izanik, jaialdi bikaina burutu zen bere omenez.

Pablo Zubiarraini eginiko omenaldiaren irudia.



Bestelako omenduak.

Bertsolariak bakarrik ez dira izan omendutakoak. Gure bailaran garrantzia izan duten lagun eta adiskideei ere egin izan zaizkie omenaldiak. Badira zenbait.

Hasteko, Tarragona soinu-jole maitatu eta nekaezinari egin zitzaien omenaldia 1973ko San Antoniotan, bera izan baitzen hogeita hamabi urtetan bertako jai eta ospakizunetan aritua, festa jarritz. Elkartearen ereserkia berak konposatu zuen.

1978an, Txabolako Patxi Oiartzabal artzainaren txanda izan zen. Oñatin ospatzen den Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa irabazi zuelako "Nabarro" txakurra lagun zuela.

1987an 25. urteurrenean Joxe Legarreta izan zen omendua, sortzaile izan eta hogeita bat urtez zuzendari-tzan jarduteagatik, berari esker ona agertzeko Elkartean barruan Euskal Herriko maparen irudia duen oroigarria ipini zen. Horretaz gain, Agiña mendian zuhaitz baten irudikapena duen buzoia ere bere omenetan jarri zen.

1990eko maiatzaren 6an ere bazkide izandako Joanito Txilibita izan zen gogoan. Aurreko urtean Irunen eraila. Ihes egin aurretik bertako Toka eta Bola Taldeko kide nabarmena izan zen. Omenaldi egunean antolatu ziren ekintza desberdinen artean marmolezko plaka bat jarri zen Elkartean.

Ur-Mia Elkartek zuzenean antolatutakoak dira lehen aipatu ditugunak, baina auzoan antolatutako hainbat omenalditan ere parte hartze nabarmena izan du.



Tarragona



Patxi Oiartzabal



Joanito Txilibitari omenaldiaren irudia.

Bola eta Toka.

Ur-Miako bolari eta tokalari Taldea. Ur-Miako bolari eta tokalari Taldearen ibilbidea 1971ean abiatu zen, ibilbide oparo eta bikaina eskaini duelarik eta gaur egun ere hala segitzen du. Badira aparteko merezimenduen zenbait aipamen egin beharra.

Gipuzkoa mailako Bola eta Toka Eguna dugu horietako bat, 1978ko abenduaren 8an ospatutakoa, oihartzun handia izan zuena. Egun berezi hau, Herrialdeko Bola eta Toka Federakuntzarekin batera Ur-Mia Elkartek antolatu zuen eta horrek Ur-Miari ospe handia ekarri zion, izan ere, Federazioko Sari Handia jaso zuen, Elkar-teak arlo honetan burututako itzelezko lanagatik, zuen zalegoagatik, eta seriotasunagatik. Tiraldietan, 88 lagunek hartu zuten parte Bolan eta 41 lagunek Tokan. Bazkaltzera inguratu zirenak ere ez ziren gutxi izan, 150 bazkaltiar elkartu baitziren.

2005eko ekainaren 4an, Euskadiko Bola eta Toka Txapelketa antolatu zuen Ur-Miak. Bertara Euskal Herriko txoko askotatik etorritako bolari eta tokalari mordoxka bildu zen. Txapelak kanpora joan ziren, bolan Xeferino Agirrek jantzi

zuen eta tokan berriz Amondarainek. Etxeko bolari eta tokalariak ere postu txukunak egin zituzten. Bazkarira, jende andana inguratu zen ehun bat lagun bilduz.

2009ko abenduaren 8an Ur-Mia Elkarteko Bola eta Toka Taldeak Gipuzkoako Bola Eguna antolatu zuen Ereñotzun. Egun horretan Ibon Miner gure bazkideak Gipuzkoako Kopa eta Erregularitate Txapelketa eta Bolari Onenaren Saria jaso zituen.

Aldi berean, bazkide franko izan dira omen-duak bolari izateagatik, hala nola, Joxe Oiarbide eta Agustin Oiartzabal (1972), Patxi Peruarena (1973), Fermin Marko eta Esteban Izagirre (1978), Joxe Luis Miner, Blas Etxeberria eta Xanti Gorrotxategi (1984), Joxe Mari Miner (2005) eta Antonio Miner (2009).

Gaur egun Ur-Mia Elkartek ofizialki Bola eta Toka Kirol Elkartea sortua du, legeria berriak konpetizioetan parte hartu ahal izateko hala eskatzen duelako.

Gure bolari eta tokalariak Elkartearen izena oso goian ipini dute. Hona hemen horren seinale:



1960ko hamarkadako bolari eta tokalariak.

Urtea	Txapelketa	Taldekiea	Postua
1972	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Joanito Oiarbide	1
1973	Erregularitate Txapelketa	Antonio Miner	1
1974	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Pello Santa Kruz	1
1975	III. Nazioarteko Toka Txapelketa Taldeka	Joanito Marko, Pedro Oiarbide, Leandro Miner	1
1976	Gipuzkoako Txapelketa	Antonio Miner	1
1980	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1983	Lehendakari Txapelketa	Antonio Miner	1
1986	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Joseba Gorrotxategi	1
1987	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Xabier Huizi	1
1989	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Ibon Miner	2
1991	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Ibon Miner	2
1992	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1992	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Ibon Miner	2
1992	Gipuzkoako Beterano Txapelketa	Xanti Gorrotxategi	2
1993	Gipuzkoako Bikoteka Txapelketa	A. Miner eta I. Miner	1
1993	Gipuzkoako Txapelketa	Antonio Miner	1
1993	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1994	Lehendakari Txapelketa	Antonio Miner	1
1994	Goierriko Txapelketa	Antonio Miner	1
1994	Irungo Txapelketa	Antonio Miner	1
1994	Gipuzkoako Infantil Txapelketa	Iñaki Miner	3
1994	Errekorra 6 boletan 40 brila	Ibon Miner	
1995	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1996	Erregularitate Txapelketa	Antonio Miner	1
1996	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1998	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1998	VI Memorial Juan Joxe Ugarteburu	Ibon Miner	1
1999	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1999	Memorial Endika Alustiza	Ibon Miner	1
1999	Gipuzkoako Gazte Txapelketa	Mikel Otegi	2
1999	Gipuzkoako Gazte Txapelketa	Arnaitz Lasarte	3
1999	Gipuzkoako Gazte Txapelketa	Josu Artola	4
2000	Jose Antonio Iturbe Memoriala	Antonio Miner	1
2002	Hernaniko Txapelketa	Ibon Miner	1
2003	Lehendakari Txapelketa	Antonio Miner	1
2003	Bolari Orena	Antonio Miner	
2004	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2005	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2005	Beterano Txapelketa	Antonio Miner	2
2006	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2006	III Memorial Egaña Garcia	Antonio Miner	1
2006	Bikotekako Txapelketa	A. Miner eta I. Miner	2
2008	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2009	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2009	Gipuzkoako Kopa	Ibon Miner	1
2009	Erregularitate Txapelketa	Ibon Miner	1
2009	Bolari Orena	Ibon Miner	
2010	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2011	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1

UR-MIA SOLAS ELKARTEKO EFEMERIDEAK

- 1962ko maiatzaren 6a. Lehenengo elkartearen eguna. Bazkaria
- 1965ean Santa Ageda bezperan eskean atera zen.
- 1967an telefonoa jarri zen elkartean. Aurretik auzoan bi bakarrik zeuden.
- 1968an atzeko terrenoa erosi zen, Juana Otegiri 10.200 pzta ordaindu zitzaizkion.
- 1971eko apirilaren 4ko Batzar Orokorrean, Kiroletako arduraduna eta botileroaren figurak sortu ziren.
- 1972an Kabi-Txiki (Ereñotzu, 18) etxeko lokala erosi zen.
- 1974an lehenengo aldiz sortzaileen artean, jubilatuz zirelako, Ohorezko Bazkideak izendatu ziren: Vicente Oiarbide, Juan Beasain eta Anastasio Zabala.
- 1975ean Uztapide bertsolaria omendu zen maiatzaren 4an.
- 1977an Ikurrina egiteko Dolox Minerri enkargatu zitzaion eta urte hartatik aurrera auzoko festa eta Elkarteko jaietan erabiliko zela erabaki zen.
- 1978an Hernani Txikia bertsolaria omendu zen maiatzeko Elkarteko bazkarian.
- 1979an bazkide kopurua 40ra igo zen.
- 1980an 60 urtekoak ere Ohorezko Bazkide izendatzea erabaki zen.
- 1985ean sukalde berria eta sarrera berria egin ziren.
- 1987an Ur-Mia elkartearen 25. urteurrena ospatu zen. Elkarteen bandera egin zen eta ordutik aurrera festa eta jai guztietan ikurrinarekin batera jartzen da zintzilik.
- 1991an lehenengo aldiz akta euskaraz idatzi zen.
- 1998an Zuzendaritza aukeratzeko era aldatu egiten da. Hemendik aurrera bazkideak zerrendaren arabera lau taldetan banatzen dira, eta talde bakoitzak bi urtetako agintaldia beteko du.
- 2006an Euskadiko Bola eta Toka Txapelketa antolatu zuen Elkartek.
- 2011an Bola eta Toka Kirol Elkartea erregistratu zen Ur-Mia Solas Elkarteen barruan.
- 2012ko urtarrilaren 15ean 50. urteurreneko lehenengo ekintzak izan ziren. Meza eta herri hamaiketakoa. Luis Gorrotxategiri eta Juan Saroberi oroigarri bat eman zitzaion, sortzaile eta bazkide direlako.

25. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK (1987-05-03)

Ur-Mia Solas Elkartek 1987ko maiatzaren 3an, igandez, 25. urteurrena ospatu zuen. Egun handi hura ospatzeko hainbat ekintza antolatu ziren, haien artean aipagarrienak hauek izan ziren:

- Elkarteko **armarri** berria egin zen. Ur-Miako armarrarian azaltzen diren irudiak, elkarteko ezaugarri bezala erria, erramua eta brilak eta bola dira.
- **Joxe Legarretaren** omenez harrizko plaka bat jarri zen, hainbat urteetan egindako lana eskertzeko. Harriak Euskal Herriko maparen irudia du.
- **Bazkari** ederra ere egin zen, eta bazkaria alaitzen Satur Agirre aritu zen bere eskusoinuarekin, eta Jon Sarasua eta Imanol Murua izan ziren bertsolariak. Bigarren saioan *Lexo*, *Garin* eta *Aterpe* ere aritu ziren bertsoetan.



Armarri berriaren bedeinkapena.

UR-MIA SOLAS ELKARTEAREN 50. URTEURRENA, EGITARAUA

Urtarrilak 15. 1962ko urtarrilaren 12an sortu zen Ur-Mia Solas Elkartea. Hori ospatzeko egun honetarako honakoak antolatu ziren:

- 10:00etan Elkarteko hildako kideen aldeko Meza.
- 11:00etan Herri Hamaiketako Elkartean.

Martxoan hasita: Ur-Mia Elkarteko Mus Txapelketa.

Maiatzak 4. Ur-Mia Solas Elkarteko Mus Txapelketaren finala eta azken partidak.

Maiatzak 5. Ur-Mia Solas Elkartearen Haur, Gazte eta Helduen Bola eta Toka Txapelketa. Goizean 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 15:00etatik 17:00etara. Ondoren txokolate jatea. Ilunabarreko 19:30etan auzoko musikari eta abeslarien ekitaldia, 50. urteurrenaren argazkiak eta pasadizoak bertan azaltzen dira. San Antonio Parroki Elizan.

Maiatzak 6. 50. urteurrenaren jai nagusia. Goizean mendi irteera Agiña mendira. Eguerdian urteurrenako bazkaria. Bertan, bazkal ostean bertso-lariak eta Imanol Kamiok eta Eñaut Agirrek bertso musikatuak kantatzen dituzte, Ereñotzuko bertso-larien bertsoekin prestatutako emanaldia da.

ESKERTZAK

Gure Elkartekaurten 50. urteurrena ospatzen zuela eta, aukera paregabea irudituzitzaigun urte guzti horietako gorabeherak liburuxka batean biltzea. Jakin badakigu gertaera guztiak xehetasunez jasotzea ezinezkoa dela, baina garrantzitsuenak biltzen saiatu gara.

Horretarako hainbat lagunengana jo dugu eta harrera ezin hobea eskaini digute.

Urtarrilaren 12an betetzen zituen egun berean bildu ginen elkarteko lau bazkideekin: fundatzaileak diren Luix Gorrotxategi eta Juanito Sarobe, Joxe Luis Beasain eta Florian Oiarbide.

Argazkiak eta dokumentu asko ekarri dizkigute bai bazkide eta auzotarrek, guztiek gogo onez hartu dute elkartearen historia liburuxka batean biltzea, eta horiei esker ugaria izan da jaso dugun informazioa eta materiala.

Hori dela eta, lerro hauen bidez era batera edo bestera laguntza helarazi digun oro eskertu nahi dugu. Guztioi esker maiatzean argitaratu ahal izan zen 50 urteko historia biltzen duen liburuxka.



Luix Gorrotxategi, Juanito Sarobe, Jose Luis Beasain eta Florian Oiarbide.